

KURTSO HASIERA: 2018/2019 ikasturtea irailaren 7an hasiko da, goizeko 10etan. Aurkezpen horretan zuen seme-alabaren tutoreak kurtso hasierari buruzko informazioa emango die.

ORDUTEGIA: klaseak irailean, ekainean eta lanaldi jarraian dugun egunetan (asteazken eta ostiraletan) 8:10ean hasiko dira eta 14:10ean bukatuko dira. Bestelakoetan, goizeko 8:10ean hasi eta arratsaldeko 15:40an bukatuko dira.

JANTOKIA: Jantokiko zerbitzua irailaren 10an hasiko da 5 egunetan geratzen direnentzako, 3 egunetan geratzen direnentzako urriaren 1ean .

GARRAIOA: Garraio zerbitzua erabiltzen duzuenok ondoren agertzen diren tokietan eta orduetan hartu beharko duzue :

| IBILBIDEA | AURKEZPEN EGUNEAN SOILIK | GAINERAKO EGUNETAN | LEKUA |
|----------------------------------|--------------------------|--------------------|---|
| OTXANDIO autobusa OLETA taxia | 9:15 | 7:20 | Oleta eta Otxandio |
| ZALDIBAR | 9:30 | 7.40 | 1. parada: autobus geltokia (sanatorio aurrean) |
| ARRIAUNDI taxi | 9.20 | 7:30 | Arriaundi |

Aurkezpen egunean, goizeko 11etan bukatzen dugunez, autobusak lurretatik 11:30ean irtengo dira .

INFORMAZIO GARRANTZITSUA

JARDUERA OSAGARRIETAN PARTE HARTZEA

Dakizuenek, gure ikastetxean irteera asko antolatzen ditugu gure ekintza osagarrietan programaturik. Ekintza hauen ezaugarriak ondokoak dira:

- **Derrigorrezkotasuna**
Arloen programazioetan txertatutako ekintzak dira, hau da, bat datoz arloak duen metodologiarekin eta aurrikitako edukiak lantzeko pentsatuta daude, hori dela eta, ekintza hauetan parte hartzea derrigorrezkoa da.
- **Finantziario partekatua**
Gurasoen Elkarrekin garraioa ordaintzen du. Sarrera atera behar bada, erdi bana ordaintzen da ikaslearen eta eskolaren artean.

Bestalde, irteera horietara joateko gurasoen edo tutoreen baimena ezinbestekoa denez zuen baimena sinatu beharko duzue **BAIMENAK** orrian.

Horrez gain, irteerak sarreren ordainketa dutenean edo egun osoak direnean, ekintzaren informazio zehatza helduko zaizue etxera, ekintza egiteko beharrezkoak diren jakingarri guztien berri izan dezazuen.

IKASLEEN IRUDIA ERABILTZEA

Asko dira ikasturtean zehar gauzatzen diren ekintza osagarriak eta irteerak institututan. Hauetan ohitura da argazki batzuk ateratzea edota filmazio batzuk egitea. Bestaldetik institutuaren web-gunean ikastetxean egiten diren ekintzen informazioa eta argazkiak ere ematen dira.

Legearen arabera gurasoen edo tutoreen baimena ezinbestekoa da ikaslearen irudia argitaratzeko institututik kaleratzen diren informazio euskarrietan.

Hori dela eta, familia bakoitzak bere seme-alabaren irudia erabiltzeko baimenik ematen duen ala ez adierazi beharko du **BAIMENAK** orrian.

Erantzuna "EZ" baldin bada, ikasleak jakitun egon behar du familiaren erabakiaz, eta bera izango da argazkia eta filmaketa egin behar denean bere burua ez irteteko zainduko duena.

Azkenik esan, adibide gisara, interneteko helbide honetan ikus dezakezue nola eta zertarako erabiliak izango diren ikaslearen argazkiak edota filmaketak: <http://www.orobiogoitiabhi.hezkuntza.net>.

TAKILAK

Ikastetxeak ikasle guztientzat takilak eskuragarri ditu, eta horiek izango dira bakoitzaren materiala uzteko tokia. Goizean ikastetxera heltzerakoan lehen hiru orduetarako materiala hartu ondoren bertan utziko dute motxila eta gainerako materiala, horrela ez dute ibili beharrik motxilarekin aurrera eta atzera.

Ikasle bakoitzak **35 euro** ordainduko ditu fidantza bezala, eta ikasturteko 3 euroko alokairua deskontatu ondoren etapa bukaeran geratzen dena bueltatuko zaio.

Ikasleak takilaren 2 giltzak jasoko ditu eta hortik aurrera bera arduratuko da bere zaintzaz.

Giltza bat etxean utziko du gordeta, giltzaren bat galtzen bazaio ikastetxean abisatuko du guk kopia egiteko (kode berezia dutelako).

Apurketa edo hondaketaren bat eginez gero, ikasleak fidantzan jarritako dirua erabiliz egingo da behar den konponketa.

Ordainketa zuek emandako kontu zenbakitik pasatuko dugu.

JANTOKI ZERBITZUA

Datorren ikasturteko jantokiaren antolaketa egiteko, zuek jakin beharreko informazioa ere zehaztuko dugu.

Ikasleek aukera bi izango dituzte apuntatzeko, 5 egun astean irailetik ekainera edo 3 egun astean urritik maiatzera eta bazkaltzen gelditzen diren egunen arabera ordainduko dute kuota.

Garraioa:

Otxandio eta Orobio: Jantokiaren arabera funtzionatuko du, beraz, jantoki ordua bukatu ondoren izango dute garraio zerbitzua.

Zaldibar: Autobus bi egongo dira, asteazkenetan eta ostiraletan jaten gelditzen ez direnak, lehenengo autobusean irtengo dira eta jantokian geratzen direnak bigarrenean. Ezin da inolaz ere jantokian gelditzen den ikasle bat lehenengo autobusean joan.

Zaintzak Jantoki orduan:

Astelehena, asteartea eta osteguna: Eguerdian ikasleen jarraipen eta ardura, jantokian geratzen direnentzako baino ez da, beraz, guztiz debekatuta dago komentsal ez direnak ikastetxe gunean egotea.

Asteazkena eta ostirala: Jantokiko ikasleek autobusa hartu arte, euren jarraipen eta ardura ikastetxearena da, horretarako monitoreak daude.

Hainbat ohar:

- Jantokian matrikulaturik egoteak suposatzen du jana eta monitoreen kontratazioa sartuta daudela. Hau dela eta, matrikula epea amaitzean ikasleen ratioaren arabera monitoreen eskaera egiten da. Beraz, jantokian bazkaltzen geratzen den ikasle batek, 5 egunetatik 3 egunetara pasatu nahi badu, jakin behar du jantokiko kuota bera ordaintzen jarraitu behar duela, monitoreen zerbitzua mantentzen delako.
- AGINDUA 2000ko martxoaren 22koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako derrigorrezko irakasmiletako eta Haur Hezkuntzako (2. zikloa) jantokiak arautzen dituena. Bere 22. artikuluan adierazten du **kuota ordainketaren derrigorra**.
- Aldaketa guztiak **idatziz** egin behar dira.
- **Jakien alergia eta intolerantzia kasuetan** eguneratutako mediku txostena eta dagokion protokoloa entregatu behar dituzte. **DERRIGORRA MENUA ESKATU AHAL IZATEKO**